


Xabier Aldanondo Aizpuru

D maila • Aipamena

Ni Xabier Aldanondo naiz, baina jende guztiak "Makilla" ezizenez ezagutzen nau. 2004ko apirilaren 15ean jaio nintzen eta Gabirian bizi naiz.

Oso gustuko dudana futboleko jolastea da, Segurako taldean jolasten dut Aizkorri Goierri taldean, 2 urte zaharrago direnen taldean nago eta oso gustura nago bertan.

Lagunekin bizikletan ibiltzea ere gogoko dut.



GABONAK

Doinua: Gaueko izar

Hementxe gaude kuadrilatxoa
etxez etxe bisitatzen
Gabiriako gabon eguna
ea gaur degun alaitzen
familiakin ta lagunekin
zuek aittu disfrutatzen
ta ea Olentzeron oparia
aurten zaizuen gustatzen

Gu ez gara Olentzero baina
ekarri deu oparia
kantu hauekin gozatu nahien
zue guztion aurpegia
Gabobetako legea deunez
denok ondo pasatzia
espero degu urte askotan
etxen hontara etortzia

Gabon eguna iritsi eta
ezpainetan da irria
pandero txistu ta trikitixaz
alaitu asmoz herria
Gaurko egunez izaten dena
ez da guretzat berria
erabilgarri izan dadila
Olentzerok ekarria

Alde batera utzi trisitura
alde batera ezina
bestela ere etortzen data
norberarentzako mina
famili dena elkartu eta
pasa hune atsegina
urte berria goza zazue
urte zaharra adina